






K-1

5.920 m

“Ezer ez zen gertatuko norbaitek noizbait imajinatu ez balu”

REINHOLD MESSNER

Bagoaz, Motx, “plisti-plasta plisti-plaust, mela-mela ta blai blai...” liburu lodi guztiek bere barnean duten liburu mehearen bila; oraindik soinurik atera ezin izan duen kantu horren bila. Espedizioaren espediziora. Taldearen esku-zarta, eta Messner maisuaren beraren hitz sentikor gehi bizkarreko zartadaz. Ze bedeinkazio, oniritzi eta eupada hobea, oxigeno gabe hamalau zortzimilakoak aurrenekoz igo dituen erraldoiarenak baino; Everesteko lehena tarteko.

Hori izango da gure negu-oxigenoa, hipoxian lan egiteko.

Ez nabil mendi erraldoiaren bila zebiltzan europar haiek bezala, badakit non nagoen.

Ez naiz Eric Shipton, XX. mende hastapenetako esploratzaile-mendizale-idazle magnetikoa, beste hainbeste egitandi miresgarriren artean, Everesterako erabiltzen den bide ohikoena aurkitu zuen hura, filosofiatzat daukadan modu alpinoa, eta beste zenbait ideia berritzaile ekarri zituen bera; garai hartan ja, gaur egun, batzuk, mendia bizitzeko dugun modua txertatu zuena. Ezta Edmund Hillary ere, Tenzing Norgay sherparekin batera 1953an lehen igoera ofiziala lortu zuen Zelanda Berriko mendizale, pilotu, filantropo... esploratzailea. Ezta Junko Tabei ere, hogeita bi urte geroago igoera hau erdietsi zuen lehen emakumea, gerokoen aurrekari.

Beraien ausardia erakusteko asmoz, berriz, nik ere Everesti pultsu bat, erronka berri bat bota nahi izan diot, eta berarekin bizitza negoziatu, garaiak eta baldintzak bestelakoak diren arren. Neguan oraindik ez, baina, 1978an, egin zitekeela demostratu ziguten Reinhold Messnerren eta Peter Habelerren estiloan, “doping” gabe. Ehuneko handi batek oxigenorik gabe ezinezkoa zela argudiatzen zuen bitartean. Izango zen, seguru asko, ustezko argudio honetan ere, bestelako interesik!

Auskalo, ahalaz gain, balore pertsonalaz gain, zenbaterainokoak izango ziren garai hartako espedizioen kostuak. Imaginatu, gaur egungo zenbait espedizioetako diruek zer balio izango luketen orduan. Batek daki nolakoak izango ziren orduko bidaiak, logistikak, baimenak...

Txanpon bat airera, auskalo beste zein monetarekin ordaintzeko!

Kontu egin –behin atzera jota– Hillary buru zuen espedizio britaniar hura, 12 alpinistak, 40 goi-sherpak eta 700 zamalarik osatzen zutela! Halako balentria bat osatu bakoitzean, “zergatik egiten duzue?” galdera egiten zioten bakoitzean, honek honela erantzuten zuen gainera: “mendia hor dagoelako”. Azalpena, bai laua! Giza emozioek ez dute nonbait arrazoi zehatzik, nork bere tontorrek baino!

Gurean, gutxiago izanagatik ere bagara batzuk, eta noski, kostuak ere neurrikoak dira: milaka eurotakoak. Ekipaiak, garraioak, materialak, elikagaiak... bada zer mugitu eta zertan pentsatu. Behin kanpamentu nagusitik gora, dozena bat sherparekin lan egitea ere normala da. Kasu honetan kanpamentu nagusitik bigarrenarako bidean, Khumbuko glaziarerako espreski, behar izaten dira pare bat *ice-doctors*, derrigor. Izan ere, bertako izotzezko jauzia oso aldakorra da baldintzen edo gertaeren neurrira; erruleta errusiar bat, labirinto bat, mundu izoztu bat mugimenduan. Ezagutza aparteko giltza bat da berton. Aurrekoan, urrutira joan gabe, bertan izan genuen ezusteko handienetako bat, elur jausi baten ondoren barruan harrapatuak geratu ginenean, hormatzarren preso. Eskerrak goi mailako sherpa-zamalarik hauek beste pasta batekoak diren, aparteko kategoriatatekoak. Beraien lana ezin hobeto betetzeaz aparte, hitz egiterakoan iturri bat dira (ez jario bat; iturri bat) eta entzuterakoan aintzira bat (ez putzu geldia; laku garden bat). “Itzaelak” dira; itzalak eta itzelak.

Barrez lehertzeko moduko pasadizo pilo bat ere kontatu diezaizkizuket, lan eta lan arteko denbora luze horietan, elkarri eragiten egindakoak. Konta diezaizuket, bote-laster, frutarekin nola egiten duten alkohola, baita ondorengo txinpartak ere. Edo harriekin dituzten jolas eta hain jolasgarriak ez diren bestelako ohiturak. Kontatzeagatik konta ditzaket txisteak, kantuak eta anekdotak parra-parra, zer esanik ez, *tchang* (Nepaleko edari alkoholoduna) pittin bat edan ondoren, baina ondo baderitzozu, horiek lagun artean partekatzeko utziko ditugu, kuadrilla, lagun-min, eskolakide edo auzokideekin.

Ez dakit ohartzen zaren, Motx, txirrindularien goi mendiko etapa baten antza hartzen duela denak, pare bat hilabeteko lanean, hori bai. Denek lan egiten duten arren, tokian tokikoek hartzen dute unekako zama, nekea taldeka eramane-

garriago egite aldera. Azken portuan, azken hatsean, liderrak eta lider ondokoek azken balentria gauzatzeko asmoz.

Behin epiketara jota, esango dizut, ez naizela ez Irvine ez Mallory ere; Everesten ipar-ekialdeko ertzetik inoiz egin izan den saiorik gogoangarriena burutu zutenak. Ofizialki, aipatu berri dizudan 1953ko lehen igoera hori baino ia hogeita hamar urte lehenenago, atera kontuak. 1924ko espedizio famatu hartatik, itzuli ez ziren handi bi. Oraindik ez dakigu, azken saiakeran, tontorrik zapaldu ote zuten, edo arinago amildu ote ziren, beraien alde atzamar bat jokatu nukeen arren. Noski, hala balitz, historia aldatuko luke, eta akaso batzuen teoriak hankaz gora jarri. Eta bai, gurean ere egon badaude, ez dizut ezkutatu, komenientzien arabeko “egia”k. Joko horietan sartu gabe, ordea, benetan zer gertatu zitzairen jakin nahi? Estutu, bada, uhala pitin bat!

Mallory zen garai hartako eskalatzaile onena askorentzat, eta ahoberoek diotenez, soka-lagun hartu zuen Irvine, arrazoi profesionalaz gain, arrazoi sexualak tarteko. Kontuak kontu, bi hauen ondorengo lehen espedizioan, Shiptonek berak gidatutako batean, Myn Harris izeneko batek, Irvinen pioleta topatu zuen. Pioleta besterik ez; ez gorpu, ez arrasto.

Malloryren gorputz izoztua berriz, handik hirurogeita hamabost urtera azaldu zen, eta kurioa bada ere, maiatzaren lehenean hain justu, langileei keinu bat egiten bezala.

Eroriko baten ondorengo haustura gogorak omen zituen hezurduran, eskui-neko hanka hautsita eta besoak harriari iltzatuak; azken arnas efimeroan, bizitza salbatzeko ahaleginaren seinale. Gerri eta bizkar bueltan soka zatiak eta zenbait elementu ingurutik: eguzkitarako betaurreko karraskatuak –momentu karratu edo begirada apurtuen seinale–, mendiaren argazki/plano/eskema bat –bizitza begiratzeko modu ausartaren seinale– eta kontatu nahi nizun honen guzti honen motiboa: liburu bat.

Liburuaren titulua: “The voyage out” (Bidaiaren bukaera). Eta lehen orrialdean “you have given me the greatest possible happiness” eskaintza idatzia zekarren; iraganetik, patuari keinu bat eginez bezala. Berez nahiko izenburu esanguratsua duen arren, eskaintzaz harago, epikoagoa bihurtzen duena, lagun zuen Virginia Woolfen beraren liburua



zela esanda. Badakizu nor zen Virginia Woolf, Motx? Leslie Stephen, orduko esploratzaile-alpinista-idazle... zientzia-gizon ausartaren alaba izateaz gain, 1941eko martxoaren 28an, bere berokirik kutunena jantzi, poltsikoetan harriak sartu eta, bere etxondotik iragaten zen Ouse erreka bere burua bota zuen emakume eta idazle aparta; literaturaren eta feminismoaren ikur; letren Frida Kahlo bat, ulertzen bada. Honen gorpua, 20 egun eskasetara aurkitu zuten, jakinminez bazaude.

Virginiak idatzi zuen lehen nobela "The voyage out" izan zen, 1915ean argitaratua, eta kurioski, gardentasuna eta bizitzaren porrotak bete-betean islatzen dira bertan. Buru-hiltze baten aurreko nota bat ere bazekarren. Berak, 1941ean, senarrari agur esateko erabiliko zuen bera prezeski!

Malloryk liburu hura gailurrera eraman nahi izan zuen, lagunaren obra, berearen parera egoteko-edo, diot nik. Literaturaren eta mendiaren plazer altuak, jolaserako betarik hartzerik bada. Akaso geratuko ziren biak ala biak, kosta lain kosta, helburuak bete gabe. Ala ez? Plazer adina min.

Nik ez daukat nire buruaz beste egiteko intentziorik, ezta hor goian geratzekorik ere. Ohartarazi nahi zintudan, harira datorren pasarte mistiko honekin, eta gorantz pauso lasaian abiatu garenez gero, nora goazen jakiteko nondik gatozen jakitearen garrantziaz. Juanra Madariagak Unai Elorriagaren "SPrako tranbia" eraman bazuen bertara, Shisha Pangmara, eta azken lerroak berton irakurri, nik zu baitzaramatzat; elkar egiten dugun hau!! Zu ere nire antzera, norberarena adina beste batzuen baitzara. Edo ez ote da horrela, Motx? Hor goian utziko dugu, baina, gure lekukotasuna, eta hor goian ez bada, gure gailurrean behintzat, abentura goserik ez dutenen tontorretatik gora.

Ausartak gara, bai, ausartak, beldurrei gaina hartzeko prestatzen garelako; geure mugak arakatzeko prest gaudelako. Hori da gizarte honi egiten diogun ekarpenetako bat. Mendiaren baimenaz, Virginia beraren hitzok gogoan: "Ez dago nire buruaren askatasunari inposa diezaiokezun morroilorik". Erlijioak bizitza berriei mintzo diren bezala, guk hemen esperimendatzeko dugu sentsazio zerutiar hori; mendian birjaiotzen gara gu. Eurentzako zein guretzako, hargatik da mendia sakratua.

Khumbuko glaziar honek berak irudikatzen du egoki, guk ere gure maskaretan -gezurrak, itxurakeriak...- pitzadurak ireki beharraz, gure pitzaduren amildegetan erori behar badugu ere: gure dudetan, gure mugetan... gure kontraesanetan. Bideratu dezagun, bada, gure izatea, sentitzera eta egitera; gure al-



dakortasunen bulkada zintzo izatera, benetakoak. Iraganaren eta etorkizunaren begien arteko oraina izatera; mendi izatera.

Jendea, han behean, ohitu egiten da egunetik egunerako lanean borrokatu behar izatera, adreilua biguntzera, gerra luzeaz eguneroko ogia irabaztera. Kasutan, aterik gabeko giltzak lantzeraz ere. Etorkizunerako ustez baliagarri den edozer ereiten dute, geroa dardarti bati aurre hartu asmoz edo.

Hemen goian, han behean bezain gogorra da lana, egunerokoak argiago erakusten digu, ordea, berregin beharra dagoela. Mundua deritzon masa itsaskor horretatik libre, berrasmatzea eskatzen dizu mendiak, horra diferentzia. Hemen ez dago kristalezko mundutxorik!

Hau bakarrik dut mundu orain, nire “mapamendia”, eta egunak mutanteak dira, neuk osatu beharrekoak, pausoz pauso, bihar atzo bilakatzen den eran, unetik unera.

Bitartean, isiltasuna, isiltasuna da gure urrea. Entzun! Zssss...

Hara, Motx, isiltasun honen urrats hotsetan datozkit, azpiko ohian horretako bestelako zaratak: amuak, mamuak, damuak... eragindako eta jasandako minak. Izan ere, hegan egitea gustuko dugunok, ausart xamarrok, “temerario” txikiak, denetik bizi izan dugu; lekutu ditugu zerugainak zein itsaspeak. Baita jokozen kanpo zenbaitetan erori ere, gazi-gozoen ordain.

Hemen errazagoa zait dena, baldintzak baldintza neure buruaz emateaz aski. Interferentziak urriagoak dira, eta nire izate onak, ugariagoak.

Ez dut mendirik mugitu behar nigatik harri bat mugitu ez duenagatik!

A! Eta hegan esaten dizudanean, metaforikoki eta literalki esaten dizut, azkenaldian Base saltoan egin baititut aparteko hegaldiak Superman bera emulatuz. Bromak aparte, esperientzia aberasgarria, bestelako txoko eta lagun apartak ezagutu ditudalako: Paul edo zendu zen Dario bera. 2012ko udan eginikoak, “Next Stop Greenland” dokumentalean bildu genituen, baita sariren bat jaso ere. Zer esanik ez, momentu oso gogorak ere, istripuak tarteko. Kontra-sariak ez daude norberaren esku maiz!

Aurretiaz aizkora nuen hegan egiteko beste modu bat. Entrenamendu ikaragarri ona deritzot, hauspoa betetzen dizun horietakoa, nire eginahaletarako proposa oso. Hain da horrela, neurekin eraman izan dudala zenbait irteeretara. *Bihurri* nire lagunarekin gauzatutakoa lekuko. 2011ko hartan, espediziora bidean, erakustaldi pare bat egiteko erabili genuen izen eta izan zorrotzeko euskal tresna hau, inoiz halakorik ikusi gabeko jendeen lurretan, kolpez-kolpe. “Aizkora hotsak goi mendietan” ekoiz-

penean geratu zen irteera hura dokumentatua, eta Bilbao Mendi Film ospetsuan saritxoa jasota, gainera. Azken finean bidaiak izan dira nire unibertsitatea.

Parte hartua naiz aizkolari txapelketaren batean edo bestean ere, tradizioa den moduan, apustu gutxi batzuetan bezala. Bere atzaparretan eroria ere bai, latzak pasatutakoa, hainbesteko eman zuen Azpeitiko zezen plazakoa kasu, non gezurra ematen duen arren, kontzienteki behintzat, hilzoritik gertuen egotera eraman ninduen esperientzia izan zen.

Apustuen munduak beti dauka galtzetik irabaztetik baino gehiago!

Baita lagunak ere, diruek eta diru ondokoek gutxitan baitute jabe duinik.

Hala dira apustu kontuak gehienetan; “hartzeko poz eta emateko hotz”. Nik nire erruan, eta dena esanda badago ere, hitza bete eta eginei/esanei amen; “auzi luzea baino, oker txikia hobe”.

Beti uste izan dut, diruak diru, errespetua ezin dela erosi, ezta eskatu ere, irabazi baizik. Nahiz eta begi-bistakoa izan, noiz edo noiz, irten zaidala atzeko zulotik tiroa. Rousseauk berak esana da: “baliagarriagoa da errespetua jendearen miresmena baino”, eta horri atxikitu nintzaion Azpeitiko zezen plazan, zekor apustu arrakalatu hartan. Kaperatik pasatzea da falta izan zitzaidan bakarra, eta ez beharrik ez nuelako.

Zer egingo diogu, miresten eta errespetatzen ditudan itsasgizonek esaten duten bezala, “itsasontzitik erori banaiz, txalupan itzuliko naiz kaira!”. Ziur hurrengoan kontu handiagoz erreparatzen diedala, amutan, mamutan eta damutan ez sartzeari; apustu kontu kantari hauei.

Kontua da, Motx, ibilbide alpinotik at, noski, bizitza ulergaitza zaidala, esperientzia berri eta bakan horiek gabe; jende eta plaza paregabe horietatik landa.

Edonoiz eta edonon, zer edo zer ikasteko irrikak bizitza bat balio beharko luke berak bakarrik. Hortik aparte ezer gutxi; ez nau mugatuko inoren zer esanak!

Hauek guztiak nire kontu egin aurretik, horrela abenturatu nintzen *Al filo de lo imposible* telebista saioan ere, baita gerora Juanito eta Edurneren “14x8000” proiektuan. Lehenak, Oiarzabalek, Messner



aitzindariarenak berdindu, eta hamalau ei buelta bikoitza emanda. Bigarrenak, berriz, Pasabane, ofizialki hamalauak egiten zituen lehen emakumea izatea lortu zuen horrela. Oxigeno barik hamalauak egitea lortu duen bakarra, berriz, Gerlinde Kaltenbrunner austriar alpinista barazki-jalea dugu. Batak eta besteak, horrela utzi ditu idatziak duela gutxi utzi gaituen Elizabeth Hawley Himalaiako notarioak; nota hartuta!

Nota hartzeko modukoak dira, halaber, alpinismoak edo mendizaletasunak oro har utzi dizkigun emakume iraultzaileak. Gurean, bederen, izan dira honetan ere, zegoen gizarte moldearen gainetik ale ederrak utzi izan dizkigutenak. Pili Ganuza nekazekin, esaterako, Aconcagua (6.959 m) zapaldu zuen 1986an, aurrez, 1975ean, eta haurdun zela, Kilimanjaro (5.992 m) erdietsi zuen moduan. 1992an bere lehen zortzimilakoa lortu zuen, Cho Oyu alegia, Amaia Aranzabalek hiru egun lehenago ezarri zuen historiako marka berdinduz. Hainbeste izen eta izan aipatuko nitzizun, Motx, emakume batek orduan gauditu behar zituen trabak ez baitziren gutxi, baina, hau guzti hau laburbiltzeko eta oraindik atzerago eginez, datu edo izkribu batek utzi ninduen zur eta lur aurreko baten. Bada, 1874ko Mont Blanc-eko igoeretan, ustez, euskal emakume baten erregistroa: Madame De Zumelzu. Harrigarria da bere horretan, ordura arte 30 emakumek baino ez baitzuten Alpeetako erregina lortu. Eta adi honi: ezkondu ei, garai hartan, ez zieten uzten halakorik egiten, ezkongabeak behar zuten, eta denek sinatzen zuten *Mlle* hizkiekin (*mademoiselle*, andereño) baina, gure *madame* de Zumelzuk, *Mme* laburdurarekin idatzi zuen. Hor egongo da in-kognita airean, baita gure lehen emakume iraultzailearen nortasuna ere.

Bai, Motx, fabuletatik harago, errealitateak jartzen gaitu egiaren gainean, eta distantziak distantzia, nirean ere, esana dizut, ezagutu izan ditudala muturrak; antartikak eta desertuak. Esperientzia aberasgarriak bidegurutzeetan, neure neurei berrekin bitarte. Eta nola ez, telebistarako beste ekoizpen batzuk ere egin izan ditut gerora, nire ipurdi saltariaren seinale. Saltsa askotan dabilenari denetik gerta dakiokenaren lagin; horregatik bataiatuko zuten *Txikon Extrem* ETBko programa, diot nik.

Esanak esan, izanak izan, eginak egin... hegan egiten duenari pasatu ahal zaizkionak, ez kaiolekin maiteminduta dagoenari. Ez naiz ni izango, hainbeste zeru izanda, oinak zorura itsatsita geratuko den hori, hitz-aspertuetan ibiltzeak errazagoa ematen duen arren, edo ematen duelako.

Elur malutak bezala, desegin eta berregin gaitzen, bizitza urratsen zain dugu eta!

Hitz eta pitz, pasa berri dugu Khumbu. Utzi ditugu bide batez labirinto biak atzean, hemengoa eta nirea. Ez da gutxiagorako, "heriotzaren pasabidea" deitzen diogun glaziar zatitik pasatzean, baimen eskariz ematen baitugu pauso bakoitza.

Hara, begira, Motx, ikusi dituzu nola agertzen ziren, noizean noiz, izoztutako gizon-ema-



kumeak ibilbidean? Aurrekoa buruan nekarrelarik, nereko pentsatzen nenguen, mugarrak ematen dutela, arriskuaz jabetzeko markak bailiran, “marra batzuetatik harago ez zaitezte pasa” esanez ariko balira bezala. Eta hemen dena da egia!

Bakoitzak jakin beharko luke bere bizitzaren marra gorriak non dauden, edota, non jarri. Ongiaren eta gaizkiaren marra bezala. Niri marro, soinean baino begiradan nabari zaizkit sarri. Onetik bezala txarretik ikusiko duzu segurutik, bestela “txit on” izango nintzen soilik... “ejem, txiton”.

Denok ere, argietatik bezainbeste itzaletatik izango dugu gutxien-gutxienean; aingerutxoak eta deabrutxoak belarri ondoetan. Zeini kasu egin izango da koska, agian. Izan ere, asmatzea nahi izaten da beti, baina, bizitza ez denez matematika hutsa, erantzun zehatzik ere, nekez. Eta balu ere, ez niri erakutsi, ahalik eta minik gutxien eraginda, eta ahalik eta lagunkoien izanda, bideak berak erakuts eta irakats diezadala, ze demontre! Bitartean, kontzientziak lasai jokatu dezakeen heinean, berezia ez naizen arren, jarraitu dezadala neurentzat bereizia izaten.

Izan gaitzen ausartak, Motx. Geurekiko ausartak eta besteekiko onak, justuak gutxienean. Mundu hobe nahi badugu, eraiki dezagun norberarengandik hasita. Geure buruekiko usteetatik salbu, eta gutaz uste dutenetik libre. Batzuetan uste baitut, askorena dela jarrera baldintzatua, eta pentsatzen gaituztenetik daukagula garenetik baino gehiago, arraioa! Etiketa bat defendatzen ibiliko bagina bezala poto barrukoa baino. Edo neu ere, *power rangers* bat ote naiz akaso? Bestelako sentipenik, gusturik edota bizimodurik izango ez banu bezala!

Ona litzake onartzetik hasiko bagina, garenak garelako errespetatzetik hasita. Ederra litzake *behar* hitzarekin baino, *nahi* hitzarekin izaten ikastea.

Hasteko izan dezagun jomuga garbi bat, orain bistara daukagun lehen kanpamentua –lehen ametsen habia– adibidez, pausoz pauso, geure helmuga ezberdinetara iristeko. Ireki dezagun geure perspektiba, ordoki honetatik bezala, eta malutaz maluta, elur-bola osoagoa izan.

Ikus-motzak izaten dira ezkorrenak, Motx, ez dute nahi eta, sudur puntatik harago ikusi, ez daukate bestelako kanpalekurik. Bizi-gose faltan daudenak, berriz, eszeptikoenak, ez direlako gai pauso bat gehiago emateko, ezta ametsen bideetan ere.

Nik argi daukat: garenak, paraxutak bezala, ireki ezean ez du ezertarako balio!

Hara, Motx, gaur lotarako, eta irudimenari hegoak zabaltzeko, hitz erdi polisemikoen jolas bat dakarkizut. “Urria” bera bezalakoa, zentzu biko edo gehiagoko jolasa. Hiztegi propio bat, gure ibilbidea bezala.

Ez dugu Kirmen edo Sarriren luma izango, ezta Lujanbio edo Egañaren etorria, eta, zer esanik ez, Oteizaren begia, baina, bizitzaz bagabiltza, egin dezagun jolas. Ez ote diote ba, jolasa dela bizitza irakurtzen erakusten duena?

Hara ba, pirata, hona hitzen altxorra bataiatu dezakegun jolas esanguratsu propio hau. Goialde honetako egunen pareko, hitz mutanteen jolas hau. Hitz urriena. Berezko musika duten hitzena. Gu bezala diagnostikatu gabeko “sorkuntza huts”en bat dutenen asmakuntza jolas ederra.

Urri bat motxilan

Pausaia: _____

Piradisua: _____

Parontesia: _____

Konpromezua: _____

Markataritza: _____

Ospekulazioa: _____

Beleunaldia: _____

Demograzia: _____

Sozialismoa: _____

Sutuazioa: _____

Barkapenak: _____

Zoresana: _____

Loburua: _____

Artefizialak: _____

Erokundea: _____

Aurreritziak: “Urre”ritziak ala “Urri”ritziak? _____

Hitzak “euskontzera” ausartzen, artista?